

GASTRO HAZIAK



Euskadiko gastronomia iraunkorraren etorkizuna

Helburua

Ikasleak sentsibilizatzea gastronomia jasangarriak Euskadin duen garrantziaz.

Gastronomia honek:

- Osagaien jatorria kontuan hartzen du (non eta nola lantzen diren, nola iristen diren merkatuetara eta, azkenik, gure plateretara)
- Tokiko produktuak aukeratzen ditu, ingurunerako eta osasunerako dituen onura ugariengatik.
- Baserritarren eta arrantzaileen lana babesten eta balioesten du.

Nola eman izena?

Azaroaren amaieran, **www.gastrohaziak.hazi.eus** webgunea argitaratuko da. Bertan, izena emateko gune bat jarriko da eta ikasgela gisa parte hartuko da. Lehiaketa 50 ikasgelatara mugatuta dago eta plazak inskripzio-ordenaren arabera esleituko dira.

Loturak

Eskola-curriculuma

GASTRO HAZIAK lehiaketak **funtsezko** kompetentziak (herritartasunerako, pertsonala, soziala, ikasten ikastekoa...) **eta diziiplina arlo jakin batzuetako kompetentzia espezifikoak** (ingurune naturalaren, sozialaren eta kulturalaren ezagutza, balio zibiko eta etikoak...) eskuratzea sustatzen du.

Garapen Jasangarrirako Helburuak

GASTRO HAZIAK lehiaketak **elikadurarekin eta elikagaiak lortzeko eta kontsumitzeko moduarekin** zuzenean edo zeharka lotutako GJHetan eragiten du, **elikagaiak biltzeko eta prestatzeko moduak** eragina baitu gure osasun pertsonalean eta planetaren zaintzan.



Nori zuzenduta dago?

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei.

Euskal gastronomiaren etorkizuna markatuko duen belaunaldia.

Zertan datza?

On-line lehiaketa Otsaila-maiatza 2024

Sailkapen fase honetan, talde bakoitzak 4 erronkatan parte hartuko du:

- Elikagaien jatorria.
- Lurretik azokara.
- Kultura gastronomikoa.
- Errezeta jasangarria eta elkarlanekoa.

Erronka bakoitzean 2 jarduera proposatzen dira, taldeka egiteko. Lehenengoa, derrigorrezkoa da eta bigarrena, borondatezkoa. Biek puntuak emango dizkiote taldeari eta azken sailkapenerako gehituz joango dira.

Merkatuetara bisitak eta lehen hiru sailkatuetarako sukaldaritza tailerra Ekaina 2024

Bertako azoka bat bisitatuko dute baserriko pertsona batek eta beste sukaldari batek gidatuta. Jarraian, sukaldaritza tailerrean parte hartuko dute. Horrez gain, ikasleek zein irakasleek opari bat jasoko dute.

Informazio gehiagorako: gastrohaziak@ortzadar.es

